

SOZIOLINGUISTIKAZKO INKESTAREN IRAKASPEN BATZUK

Erramun Baxok

EKEko (Euskal Kultur Erakundea) lehendakaria

Idazki hau 1996an Euskal Herri osoan egin zen soziolinguistikazko inkestaren beste komentario bat da. Ba ote da zerbait gehitzeko orain arte agertu diren ikusmolde optimistei edo pesimistei? Hain segur ez. Halere gogoeta pare bat egingen dut herri hizkuntzaz, baina aldi honetan Iparralde-tik Hegoaldera begira, beste orduz alderantziz egiten delarik.

Badakigu hizkuntzei buruzko ikerketa hau hiru lurraldeetan egin zela, Eusko Jaurlaritzaren ekimenez, Nafarroako Gobernua partaide. Ipar Euskal Herrian ez baitauka egitura politiko berezirik, Euskal Kultur Erakundeak eraman du lankidetzaz: legitimitate zerbait badu administrazio kontseiluan diren lau politika mailetakoz zortzi ordezkarien bitartez.

Horiek hola, lana molde berezian egin dugu. Hegoaldean ikerketa eremuak herrialde historikoak ziren. Iparraldean ez. Lagina lurraldearen hiru zatitan banatu da: Baiona-Angelu-Biarritz hiri multzoa (BAB 109.000 biztanle), Lapurdi barnealdea (101.000 biztanle), Baxenabarre eta Zuberoa bateginik (40.000 biztanle). Hiru probintziak ez omen zirelako iker-alor fidagarriak, historia parentesietan egon da.

Bestalde, INSEE, Frantziako estadistika zerbitzu publikoaren laguntza ukan dugu, inkesta honi buruz arduradunen gogo ona senditu dugularik. Denbora berean, beste gauza bat ardietsi dugu: 1999ko erroldan lehen aldikotz galde linguistikoak sartuko dizkigute. Esan nahi luke azkenean botere publikoak herri hizkuntzak konduan hartzen dituztela.

Oro har inkesta baliosa izan da nola teknikaren aldetik hala sortu dituen gogoeten aldetik: 6.359 lekuko 15 urtetik gora, 3.495 Euskal Autonomi Elkartean, 1.464 Nafarroan eta 1.400 Iparraldean. Galde zerrenda hiru lurraldeetako ordezkarien artean antolatu zen, 1991ko inkesta oinarritzat hartuz. EUSTAT erakundeak datu guztiak bildu ditu, landu eta argitaratu.

Berehalako komentarioek azpimarratu zuten Iparraldeko euskararen egoera larria, hain segur kontrastuan Hegoaldeko aitzinamendua hobeki agertzeko. Artikulu bat idatzi nuen katastrofismora ez erortzeko eta hementengoa 4 puntu baikor aipatuz. Egiazko diagnostikoak alde onak ere erakusten ditu.

Iparraldea konparatzen badugu Euskal Autonomi Elkartearekin eta Nafarroarekin, hemen daude sortzetikako euskaldunen ehuneko gorena (%27, %21, %8), euskaldun osoen arabera handiena (%27, %25, %10), euskararen aldeko jarreraren neurri gorena (%49, %46, %38) eta euskararen kontrako jarreraren neurri gutxiena (%12, %16, %32). Hortan gelditzen da gure xapelgoa eta ez da optimismo enuxentean erortzekorik. Zorigaitzez bada beste ohar lazgarriagorik.

Artikulu honetan erakutsi nahi nuke, ezberdintasunak izanik ere lurraldeen artean, gure herri hizkuntzak indargune eta ahulgune berdintsuak dituela Aturritik Ebroraino.

1. Orotan euskara gutxiengoan dago.
2. Eskolak gainbehera historikoa gelditu du.
3. Familiako jarraipena ahul da.
4. Gizarte erabilera lurraldetasunari lotua da.
5. Aterabidea nortasun kolektiboan dago.

1. OROTAN EUSKARA GUTXIENGOAN DAGO.

Euskararen ezaugarri hau nabaria da baina problematika beti airean dago eta inoiz ez da sakondu. Soziolinguistika oharra egin ondoren lehenbailehen konklusio politikoetara jauzi egiten dugu. Lasterregi hain segur. Lehenik zerrenda ditzagun datu batzuk euskararen gutxiengoaz.

(%)	Ama hizkuntza	Gaitasun ona	Etxeko hizkuntza	Osasun zerbitzuetan	Aldeko jarrera
Iparralde	26,4	26,4	35	9	49
EAE	20,5	25,3	48	33	46
Nafarroa	8,3	9,6	46	34	38
Euskal Herria	18,8	22,5	47	30	45

Euskara ama-hizkuntza da Euskal Herrian bizi diren %18,8rentzat. Badakigu lehen hizkuntzaren eragina, gizabakoitzaren nortasuna haurtzaroan

«Hizkuntzei buruzko ikerketa hau hiru lurraldeetan egin da, Eusko Jaurlaritzaren ekimenez, Nafarroako Gobernua partaide. Ipar Euskal Herrian ez baitauka egitura politiko berezirik, Euskal Kultur Erakundeak eraman du lankidetzan»

«Hegoaldean ikerketa eremuak herrialde historikoak ziren. Iparraldean ez. Lagina lurraldearen hiru zatitan banatu da: Baiona Angelu Biarritz hiri multzoa (BAB 109.000 biztanle), Lapurdi barnealdea (101.000 biztanle), Baxenabarre eta Zuberoa bateginik (40.000 biztanle)»

eraikitzen delarik. Alabaina, adin horretako gertakari afektiboek moldatzen dute bizitza guztirako jokamoldea. Iparraldean proportzioa goratzen da %26,4ra, baina 3-15 urteak arteko haur eta gaztetxoetan %6ra erortzen da. Adin berean Euskadi Autonomoan %22k euskara dute familiako hizkuntza eta Nafarroan %8k. Gauzak bestela esanez, batez beste %80 haur erdal herrian sortzen dira.

Hizkuntza-gaitasunaren zenbakien aurrean, ikus dezakegu ikaskuntzak herri hizkuntzaren egoera aldatu duela Hegoaldean. Alabaina, euskara ongi dakitenean kopurua ama-hizkuntza dutenena baino goragokoa da. Iparraldean, aldiz, zenbaitek euskara batzuk eta beste hainbestek ahazten. Oro har, hizkuntzaren egoera ez da mugitzen. Horiek hola, gaitasunaren aldetik ere euskara gutxiengoan dago.

Dakitenean nola erabiltzen dute euskara eguneroko harremanetan? Familia giroan eta auzoan gehixeago, gizartean gutxiago. Bi eremu har ditza-gun, etxean eta osasun-zerbitzuak, giza nortasunarekin lotura hertsia dutenak. Familia euskaldunetan ere euskara baino erdara gehiago entzuten da, bereziki Iparraldean. Osasun-zerbitzuak dira lurralde guztietan erakunde erdaldunenak.

Azkenean, herritar guztien jarrera aztertu da euskararen erabilerari buruz. Gutxi euskara erabiltzen badute ere, askok onartzen dute euskara irakas dadin eskoletan eta erabil dadin administrazioan. Eta ados dira esateko euskarak ingelesa baino garrantzi gehiago duela. Galde guztiei bai esaten dutenek euskararen aldeko gogo ona erakusten dute.

Halere, euskararen alde direnen ehunekoak inon ez da 50era heltzen. Axolagabeak eta aurkakoak gehiengoan dira hiru lurraldeetan. Beraz herritarren xedeetan euskara ez da herri hizkuntza nagusia. Denek hizkuntza kontzientzia «malerusa» bizi dugu, pedagogia berri batek sendatu behar lukeena. Ordu da jakin dezagun euskaltasuna zer den eta non dagoen euskararen unibertsoa.

2. ESKOLAK GAINBEHERA HISTORIKOA GELDITU DU.

Soziolinguistika-ikerketak bi ohar eginarazten dizkigu, bata lazgarria eta bestea itxaropentsua.

Ohar lazgarria da Iparraldean euskarazko gaitasuna gain behera doala.

Ohar pozgarria da Hegoaldean euskara behetik gora doala bizitasun handiz. Hemen zaharrago eta euskaldunago garelarik, han gazteago eta euskaldunago dira. Bigarren egoera honek itxaropen handia ematen digu euskararen geroaz.

Hona euskara ongi dakitenean ehunekoak hiru lurraldeetan. Lau sail hartzen ditugu adinaren arabera: 65 urte eta gehiago, 35-50 urte, 16-24 urte, eta 15 urtez behetik.

Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera

	Adinekoak	Helduak	Gazteak	Gaztetxoak	Orotara
Iparralde	37	27	11		26,4
EAE	29	21	33	45	25,3
Nafarroa	10	9	11		9,6

Zenbaki hauek hiru irakaspen emaiten dizkigute.

1. Herri hizkuntzen beherakada ez da ezinbestezkoa, ez da fatalitate bat.
2. Neurri eskasak hartzen direlarik, gauzak doazen bezala utziz, gainbeherak jarraitzen du, Iparraldean gertatzen den bezala.
3. Hizkuntz politika orokorra antolatzen delarik arriskuan diren hizkuntzen garatzeko, ondorio miresgarriak agertzen dira. Nabari da Euskadi Autonomoan, 21etik 33ra eta orain 45era igaiten delarik euskaldunen kopurua. Gauza bera Nafarroan, neurri txikiagoan.

Gaztetxoaren emaitzak ez dauzkagu oraindik. Halere, Iparraldeko datuen lazarritasuna ezartzeko, erran dezakegu oraingo gurasoen haurren %12 badabilzala ikastoletan edo ikasgela elebidunetan. Bestalde, 35 urtetik 16 urte arte beherakada nolazbait baretu da. 35-49 urtekoengan euskaldunak %27 dira. 25-34 urtekoengan euskaldunak %14 dira gehi %13 elebidun hartzaile. 16-24 urtekoengan %11 gehi %13. Erdi eskualdunek euskaldungoa hein batean atxikitzen dute.

Iparraldeko hizkuntza haustura, orain 35 urte dutenengan gertatu da. Nola konpreni euskararen zorigaitzezko erortze hori, dakigularik, hain zuzen, duela 35 urte berpiztu zela hemengo abertzaletasuna.

Adinak ikusiz, esan dezakegu Hegoaldean eskolak eman diola euskarari garapeneren bihurtzea. Autonomi Elkartearen, lehen mailako haur gutziek euskara ikasten dute, ondorio onekin B eta D ereduetan, zerbaitxo A ereduaren. Gazteen euskalduntze urraspidea arrakasta handirekin dabil. Gertakari historiko baten aurrean gara. Orain arte, aspaldiko urteetan zehar, euskarak beti atzera egin du, bai lurraldeen aldetik, bai hiztunen kopuruaren aldetik. Lehen aldikotz, herri hizkuntzak galdu zituen eremuak irabazten ditu. Demolinguistikaren aro berri batean sartzen gara.

Gerorako ikusiko dugu hizkuntza-gaitasuna eta erabilera ez doazila beti elgarrekin. Ez dakitenek ezin dute erabili. Baina dakitenek ez dute beti erabiltzen. Adibidez, familia euskaldunetan.

3. FAMILIAKO JARRAIPENA AHUL DAGO.

Soziolinguistika taula batek erakusten digu zein den inkestatuen lehen hizkuntza, gurasoen hizkuntz gaitasunaren arabera. Iparraldean, aita eta ama euskaldunak direlarik %72rentzat euskara da lehen hizkuntza eta %11rentzat euskara eta frantsesa. Egiatzko familia euskaldunetan ere eus-

«Iparraldean konparatzen badugu Euskal Autonomi Elkartearekin eta Nafarroarekin hemen daude sortzetikako euskaldunen ehuneko gorena (%27, %21, %8), euskaldun osoen arabera handiena (%27, %25, %10), euskararen aldeko jarreraren neurri gorena (%49, %46, %38) eta euskararen kontrako jarreraren neurri gutxienean (%12, %16, %32)»

«Euskara ama-hizkuntza da Euskal Herrian bizi diren %18,8rentzat. Iparraldean proportzioa goratzen da %26,4ra, bainan 3-15 urteak arteko haur eta gaztetxoetan %6ra erortzen da. Adin berean Euskadi Autonomoan %22k euskara dute familiako hizkuntza eta Nafarroan %8k. Gauzak bestela esanez, batz bestea %80 haur erdal herrian sortzen dira»

kara 17 puntu jautsi da. Autonomi elkartearen galera 9 puntukoa da eta Nafarroan 28 puntukoa. Aita edo ama erdalduna delarik, orduan Iparraldeko haurren %79 hastetik erdalduna da. Autonomi elkartearen %63 eta Nafarroan %72. Beraz, baldintza hobereanean ere familiak ezin du bakarririk euskararen jarraipena segurta.

Euskara zein neurritan erabiltzen den familietan neurtzerakoan, lurraldeen arteko ezberdintasuna nabari da. Iparraldean euskara anitz erabiltzen da aita edo ama xaharrarekin (%83), biziki gutiago senar emazteen artean (%51) eta are gutiago seme-alabekin (%45). Belaunaldia gazteago eta euskara gutxiago erabiltzen da, ez baita marka ona jarraipenaren segurtatzeko.

Hegoaldeko bi lurraldeetan familiako hizkuntza jokabideak konparagarriak dira. Euskara erdara baino gehiago erabiltzen da helduen artean (%55 batez beste). Aldiz, gurasoek anitz hitz egiten dute euskaraz beren haurrekin (%79, %70). Hemen eskolako hizkuntza pedagogiak eragin ona du familiari buruz.

Euskararen erabilera familian

(%)	Euskal Herrian	Iparral.	Autonomi Elkartearen	Nafarroan
FAMILIAN				
Ama xaharrarekin	60	83	59	55
Senar-emazteen artean	55	51	56	53
Seme-alabekin	73	45	79	70

FAMILIETAKO PEDAGOGIA

Lehen irakaspena da hizkuntza pedagogia baten beharra gurasoengan. Gizarte elebidunean zer egin? Bilera asko egiten ditut guraso gazteekin euskal ikaskuntza hautatzerakoan. Aita-ama euskaldunek ere ez dute konprenitzen herri hizkuntzaren garrantzia. Nola gure nortasun kolektibo aberastasun bat den, ezin ordezkaturia. Alderantziz, ikusten dute oraingo gizartearen komunikatzeko erdara eraginkorrago dela. Komunikazio funtzioari nortasunari baino garrantzia gehiago ematen diote. Ez dakite zer egin elebitasun egoera batean. Zeren eta elebitasuna orotan da. Aita euskalduna eta ama erdalduna, orduan nola hitz egin seme-alabekin? Inoiz ez dute entzun Ronjat-en teoria, mintzakide berarekin hizkuntza bera erabiliz, haurra bi hizkuntzez ongi jabetzen dela.

Gainera, etxeko bizitzan lehenetsuna familiako komunikazio lasaiak dauka. Bi hizkuntzen erabiltzea konplikazioa da. Familian hizkuntza dinamika aldakorra jartzen da urteetan zehar. Guraso euskaldunek lehen haurrekin euskaraz egiten dute. Haurrak ez du beste hauturik. Baina, bigarren haurra eskolara doalarik elebitasuna etxean sartzen da, anai-arrebek ez baitute gurasoen beharrik, nahi duten bezala hitz egiteko. Azke-

nean, hirugarren haurrekin erdara naugusi daiteke mintzakideen gehiengo aldatu delakotz.

Fenomeno hau ongi aztertua da Canadian franko-ontarioengan. Guk ere familietako hizkuntz jokabideak hobeki ezagutuz, euskararen aldeko estrategia lasaiak eta eraginkorrak asma genitzake eta, kanpaina batzuen bidez, guraso gazteek ikas lezake zein pedagogia erabil euskararen aldeko gogoia pizteko haurrengan.

Baina ez dezagun familiei eska ezin dutena. Gurasoek bakarrik ez dezakete herri hizkuntza salba, familia gizartearen zati bat baita eta gizartearen itxurakoa. Gainera ez da elementu erabakitzailea, salbu hezkuntzaren eremu txiki batzuetan. Gizarteak eman behar dio herri hizkuntzari bere lekua. Hegoaldeko legeak eta Iparraldean prestatzen ari den «hizkuntz antolaketaren eskema» beharrezkoak dira, euskararen aldeko politika orokor bat aitzinarazteko. Orduan familiek hobeki ikusiko dute zein diren beren eginbideak.

4. EUSKARAREN ERABILERA LURRALDE TASUNARI LOTUA DA

Euskara ongi dakitenek hizkuntza hau non eta nola erabiltzen duten aztertzea zen inkestaren helburu nagusi bat. Haatik, berehala esan, ikerketa jendetzearen % 22,5ean mugatzen dela. *Euskararen jarraipena II* liburuak komunikazio eremuak hiru zatitan sailkatu ditu: familia, gertuko komunitatea, gizartea (34.orr.). Eremu bakoitzean hiru koloreko lerro batek erakusten ditu mintzamolde ezberdinak: zein neurritan euskara nagusi den, edo erdara nagusi, edo bi hizkuntzak hein bertsuan erabiltzen diren.

Hemengo taula honek zenbakietan neurtzen du euskararen pisua gizartearen alorretan gehiketa bat eginez: euskara nagusi delako ehunekoa gehi elebitasun mailaren erdia. Konpara ditzagun hiru lurraldeetako ezaugarri berdinak eta bereziak.

Euskararen erabilera komunikazio eremuka

(%)	Euskal Herrian	Iparralde	Autonomi Elkartean	Nafarroan
FAMILIAN				
Etxean	56	54	57	46
AUZOAN				
Lagunartean	59	53	59	59
Lankideekin	52	39	54	56
Merkatuko jendearekin	81	80	81	71
GIZARTE ZABALEAN				
Banku-etxeetan	57	25	63	47
Udal-bulegoetan	63	38	66	52
Osasun-zerbitzuetan	37	15	40	39

«Axolagabeak eta aurkakoak gehiengoan dira hiru lurraldeetan. Beraz herritarren xedeetan euskara ez da herri hizkuntza nagusia. Pedagogia berri batek sendatu behar lukeena. Ordu da jakin dezagun euskaltasuna zer den eta non dagoen euskararen unibertsoa»

«Ohar lazgarria da Iparraldean euskarazko gaitasuna gain behera doala. Ohar pozgarria da Hegoaldean euskara behetik gora doala bizitasun handiz. Hemen zaharrago eta euskaldunago garelarik, han gazteago eta euskaldunago dira. Bigarren egoera honek itxaropen handia ematen digu euskararen geroaz»

Hiru lurraldeen antzekotasuna da euskara erdara baino gehiago erabiltzen dela komunikazio gune tradizionaletan: etxean (%56), lagunartean (%59), merkatuan (%81), parrokian (%77). Euskarak ongi betetzen du funtzio afektiboa gutartekotasuna adierazteko. Halere euskara gehiago erabiltzen da lagunartean senar-emazteen artean baino. Gainera, orotan senar-emazteek euskaraz gehiago ari dira beren gurasoekin (%60) ezinez-eta, beren artean (%55). Orotan, euskal gune kartsuena merkatua da (%81) eta erdal gune nabarienak osasun zerbitzuak (%37).

Ezaugarri ezberdinak Iparraldearen eta Hegoaldearen artean agertzen dira.

Hegoaldeko euskaldunek erdara baino, euskara gehiago edo berdintsu erabiltzen dute gizarte zabalean: lankideekin (%54, %56), saltokietan (%56, %45), bankuetan (%63, %47), udal-bulegoetan (%66, %52). Nafarroan gutxiago Autonomi Elkarteari konparatuz, salbu lan lekuetan.

Aldiz Iparraldean biziki euskara gutxi erabiltzen da gizarte zabaleko eremuetan: lankideekin (%39), herriko-etxeetan (%38), saltegietan (%28), bankuetan (%25), osasun zerbitzuetan (%15). Horrek esan nahi du modernitatearen lekuetan eta erakunde formaletan frantsesak duela nagusitasun handia.

Erabileraren taula ikusiz, ofizialtasunaren eragina nabari da, ez bakarrik gizarteko erakundeetan, bai eta ere familiako bizitzan. Iparraldeko zenbakiak erakusten dituzte Pariseko jakobinismoaren ondorioak. Eskualdeetako hizkuntzek ez dute inolako estatutu juridiko publikorik. Ezin dute ukan errepublikaren «mito fundatzaileak» idarrean direlako. Alabaina, herritarren berdintasunaren izenean ezin dira onartu lege bereziak: eskualdeetako hizkuntzen legea eginez (edo hizkuntza gutxituen euroituna sinatuz) herritar batzuek abantaila batzuk ukan lezakete besteek ez dutena, herri hizkuntzaren erabiltzeko eskubidea! Gainera, molde berean lege horrek hizkuntza elkarteak sor litzazke eta errepublikaren batasuna puska lezake: beste mito bat da herritarren eta estatuaren ez dela bitarteko erakunderik.

Mito horiek aspaldidanik ukatuak dira. Hiri eta eskualde asko lege berezien jabe dira: Paris, Marsella, Alzasia, Korsika. Berdintasunaren eta batasunaren printzipioak herri hizkuntzen aurka erabiltzen dituztenek etnozentrismo politikoa frogatzen dute. Frantziako konstituzioak hizkuntza bakar bat aipatzen du: «*Errepublikaren hizkuntza frantsesa da*». Ez zen tokirik beste herri hizkuntzentzat. Gure eginbidea da ulertaraztea berdintasun juridikoa bezain premiatsua dela ezberdintasun kulturalaren eskubidea.

Euskal Autonomi Elkartean euskarak eskubidezko izate publikoa dauka, gaztelerarekin batean ofizialtasuna baitu. Ez osoki hein berean: herri hizkuntza nahikoa da, estatu hizkuntza beharrezkoa delarik. Halere garapenerako bidea zabalik dago hiztunek nahi duten neurrian. Gobernu autonomoak eginbide du hizkuntza eskubideen gauzatzeko baliabide politikoak finkatzea. Legeen eta dekretuen bidez, euskara sartu da ikaskun-

tza sare osoan eta bere tokia hartzen du botere polikoaren esku den administrazioan. Gizarte arrunteko egiturak ere euskalduntzen ari dira, hiztunen ekimenei esker eta laguntza publikoarekin. Polikiegi batzuentzat, lasterregi besteentzat. Inportanteena ez da abiadura, garapenaren jarraitzea baizik.

Ohar berdintsuak egin genitzake Nafarroako eskualde euskaldunentzat. Gainbehera gelditu da, aitzinamendua nabari da, bereziki gazteengan. Halere erdal herri zala bat hor dago, legez kanpo, hizkuntza estrategia berezi baten esperimertzio gune.

Ofizialtasunik ez balitz, zer litzateke Hegoaldeko hizkuntza egoera? Ikus zer gertatzen den Iparraldean. Euskarak eta beste herri hizkuntzek ez dute eskubidezko izaite publikorik. Ezin dugu esan legez kanpo direnik. Konstituzioaren arabera, sinesmen eta adierazpen molde guztiak «oinarrizko askatasun indibidualetan» sartzen dira. Molde hortan ezin da herri hizkuntzen aldeko politikarik egin: nik zerbitzu publikoetan euskaraz mintzatzeko askatasuna baldin badut, arduradunak ere erdaraz lan egiteko askatasuna dauka. Askatasun indibidualak elgarren artean indargabetzen dira, gehiengoaren faboretan. Legea da gutxiengoaren zaindari.

Euskararen estatutu publikoaren falta ageri da Iparraldeko datuetan. Udal-bulegoetan gutxi erabiltzen da, zerbitzu publikoetan are gutxiago eta administrazio zentralizatuan deus ez. Frantzia bezalako estatu legalistan, administrazioaren adibideak eragin handia dauka. Erakunde publikoetan euskara ez bada erabiltzen, empresa pribatuek ez dute indarrrik egiten euskararen alde, ez saltegiek, ez bankuek, ez eritetxeek. Erosleen biltzeko empresa batzuek neurri sinbolikoak hartzen dituzte: iragarki elebidunak, txkeak euskaraz eta beste. Aitzinamendu miko batzuen ardies-teko, etengabeko militantismora kondenatuak gara.

Ofizialtasunaren falta ageri da ere eskoletako programetan eta familiako mintzamoldean. Iparraldean guraso euskaldunek ere euskara gutxiago erabiltzen dute beren seme-alabekin (%45) Hegoaldean baino (%79, %70). Arrazoi beragatik gurasoek ez dute axola handirik haurrak klase elebidunetan ezartzeko. Aitortzen ez den argudioa hau da: «Zergatik familian erabil eta eskolan ikas, gizartean balio ez duen hizkuntza?». Gizarte ofizialak onartzen ez duen hizkuntza, gizarte arruntean ere ez du lekurik. Orduan zergatik ikas etxean eta eskolan beharrezkoa ez den hizkuntza? Gure nortasuna zaintzeko? Egia, motibazio sinbolikoak ederrenak dira baina ahulenak.

Inkestak erakusten digu lurraldetasunaren beharra. Hizkuntza eskubideen zaintzeko (eta beste eskubide askorentzat), herriak hartzen du bere nortasuna agertuko duen botere politikoa eta ardura administrariboa. Legeak onartzen dituen eskubideak hobeki gauzatuko dira eta oraindik onartuak ez diren eskubideak lasterrago lege bilakatuko dira. Herritar soilak ahul dira erakunde publikoen aurrean, baina ararteko egiturek indar gehixago ematen die. Alde hortarik ere ulergarri da Euskal Departamenduaren eskaera.

«Herri hizkuntzen beherakada ez da ezinbestezkoa, ez da fatalitate bat. Neurri eskasak hartzen direlarik, gauzak doazen bezala utziz, gainbeherak jarraitzen du, Iparraldean gertatzen den bezala. Hizkuntz politika orokorra antolatzen delarik arriskuan diren hizkuntzen garatzeko, ondorio miresgarriak agertzen dira. Nabari da Euskadi Autonomoan, 21etik 33ra eta orain 45era igaiten delarik euskaldunen kopurua. Gauza bera Nafarroan, neurri txikiagoan»

«Iparraldean euskara anitz erabiltzen da aita edo ama xaharrarekin (%83), biziki gutiago senar emazteen artean (%51) eta are gutiago seme-alabekin (%45). Belaunaldia gazteago eta euskara gutxiago erabiltzen da, ez baita marka ona jarraipenaren segurtatzeko»

Eta hizkuntza eskubideen zaintzeko ez dugu nagusitasun osoaren zain egoterik. Gure herri guztia noiz estatu oso bilakatuko den, hori beste maila bateko auzi politikoa da. Historian zehar, herri hizkuntza anitz berpiztu dira autonomia pixka bati esker, Finlandian, Quebecen, Katalunian, Flandrian. Teoria berri baten arabera, ekonomiaren eta administrazioaren mundializazio aro honetan, nazio-estatuaren boterea ahultzen ari da, eta, denbora berean, «eskualde-estatuak» daukate indar ekonomikoa eta kulturala. Adibidez Singapur, Taiwan, Honkong, Tibet, Luxemburgo eta idazleak aipatzen zuen ere Euskal Herria (Kenichi Ohmae, *The rising of the region-state*).

Aztertzerakoan zerk ematen dien «eskualde erakargarri iraunkorrei» (*régions durablement attractives*) beren neurria baino goragoko ahala, bi faktore beti agertzen dira: nortasun kolektiboa eta gazteriaren sortzailetasuna. Lurraldea iraunkorki desiragarria da, herritarrentzat eta kanpokoentzat, nortasun eta kultura berezia lantzen duelarik. Zeren eta elgarrekin bizkortzen duten nortasunak herritarrei ematen baitie bizitzaren kostua eta ekonomia garatzeko indarra.

Bestalde (2. faktorea), gazteriaren eginbidea eta atsegina da herriaren historiari jabetzea, ez atzera begiratzeko baina aurrera jarraitzeko. Artxibetako historia nostalgian gelditzen da. Aldiz, historia biziak sortzailetasuna sustatzen du. «Herriak bere arima galtzen duelarik, ekonomia ere galtzen du. Hitza eman behar zaie olerkariari, idazleari, musikariari, artistei, sortzailei. Beste guztia jarraiko da» (X. Grall).

Pentsalari ekonomista hauentzat kultura bereziaren eragina nabari da. Nortasun kolektiboaren kontzientziak ematen die herritarrei historia jarraitzeko indarra. Hemen ere herri hizkuntzaren lekua ulertu behar dugu.

5. ATERABIDEA NORTASUN KOLEKTIBOAN DAGO

Orain arte euskaltasuna ez genuen dudan ezartzen. «Euskararik gabe ez da Euskal Herririk». Ekuazio nagusia da euskaltasuna berdinean euskalduntasuna. Erdaldunak ziren nolazbait konbertitu behar diren herritarrak. Euskalduntze urraspidea bi momentutan ikusten genuen: ikas eta erabil. Ikasteko erakundeak sortu ditugu: ikastolak, gau-eskolak, euskaltegiak, eredu pedagogikoak. Erabilera mugatu da gure esku ziren komunikazio guneetan: irratiak, telebista, lekuko administrazioa, zerbitzu zenbait. Baina, lanaren mundua, aisialdiak, familien gehiengo handia, hots, gure bizitzan hain garrantzi handia duten eremuak, euskararen alorretik kanpo daude.

Aspalditik, Txepetxek oroitarazi digu herritarren euskalduntzeko hiru urrats iragan behar zirela: motibazioa, ikaskuntza eta erabilera. Hiru momentu horiek bata bestea osatzen eta indartzen dutela. Motibazioa beharrezkoa da ikasteko eta gizarte erabilera da motibazioaren iturburua. Arrasateko esperientziari jarraikiz, euskara elkarteak zabaldu dira herriz herri. Gaur egun «euskararen unibertsoa» aldarrikatu da eta euskara ber-

pizteko plan nagusiak antolatzen dira Hegoaldean eta Iparraldean. Proiektu handi horien eramaiteko indar nagusiak botere politikoa eta gizarte ekimenak dira, Katalunia eredutzat hartuz.

Herritarrek zer diote beren nortasunaz? 1996ko inkestaren galde bat hau zen: «Euskal Herritar ala espainol (edo frantses) jotzen duzu zure burua?» Erantzunak oso ezberdinak dira lurralde batetik bestera.

Herritarrek adierazten duten nortasuna

(%)	Euskal Herritar	Espainol, Frantses	Biak	Nafar
Iparralde	11	30	59	
EAE	32	17	51	
Nafarroa	23	35	33	86

Beren burua soilik Euskal Herritar ikusten dutenen kopurua Euskal Autonomi Elkartearen da handiena eta Iparraldean txikiena. Soilik nortasun frantsesa edo espainola janzten dutenen kopurua biziki handia da Iparraldean eta Nafarroan, herena nonbait han eta Euskadi Autonomoan baino bitan gehiago. Euskal Herriko biztanleen erdiak bi nortasunak hartzen ditu. Hemen identifikazio bikoitzaren fenomeno nabari da eta gogoeta bat merezi du.

Beste ohar gogoetagarria hau da, herriaren eta hizkuntzaren kontzientzia ez direla elgarrekin lotuak. Inkestan galde egin delarik «egiazko Euskal Herritar izateko euskara jakin behar denetz» iritzi ezberdinak agertu dira, adostasun handiena Iparraldean delarik eta ezadostasun handiena Autonomi Elkartearen.

«Herritar izateko euskaraz hitz egiten jakin behar da»

(%)	Ados	Ez ados	Erantzunik ez
Iparralde	62	29	9
EAE	33	53	14
Nafarroa	36	48	16

ELEBAKARTASUNAREN MUGAK

Denbora berean, gogoeta berri bat agertzen da herria, kultura eta hizkuntzaren inguruan. Adibidez, Quebec-eko erreferendumaren ondotik, bertako federalistek zatiketaren ideia zabaldu dute, hizkuntzak irizpidetzat hartuz. Frankofonoek hauta dezatela subirania baina frantsesaren eremuetan bakarrik. «Aldiz, Amerindianoek, anglofonoek eta etorkin alofonoek Kanadari loturik egoteko eskubide kolektiboa badugu. Zuek Kanada za-

«Aita-ama euskaldunek ere ez dute konprenitzen herri hizkuntzaren garrantzia. Komunikazio funtzioari nortasunari baino garrantzia gehiago ematen diote. Inoiz ez dute entzun Ronjat-en teoria, mintzakide berarekin hizkuntza bera erabiliz, haurra bi hizkuntzez ongi jabetzen dela»

**«Gizarteak eman behar
dio herri hizkuntzari bere
lekua. Hegoaldeko legeak
eta Iparraldean
prestatzen ari den
"hizkuntz antolaketaren
eskema" beharrezkoak
dira, euskararen aldeko
politika orokor bat
aitzinarazteko»**

titzen baduzue zuen nortasunaren izenean, guk Quebec zatituko dugu geurearen izenean». Eta mapak argitaratu dira hizkuntzen mugak finkatuz, adibidez Montreal hiria erdizkatuz, St Laurent karririk jarraikiz eta herriaren iparralde guztia Amerindianoen esku utziz.

Subiranisten erantzuna duda-mudazkoa izan zen: *«Herria ezin zatitua da historiak eraiki duelakotz. Hizkuntza ezaugarri nagusi bat da, baina ez da bakarra. Estatu moderno guztiek kulturaskotasuna onartzen dute»*. Hots in- dependista batzuek federalisten argudioak bereganatu dituzte, besteak in- tegrismo kulturalera itzultzen direlarik.

Gaur egun, politikariek psikolinguisten aholkuak eskatzen dituzte (R. Bourhis, J. Berry eta beste) ulertu nahiz zer den hizkuntzan oinarritzen den nortasun kolektiboa.

Kultura gutxituei buruz bi ikusmolde ezberdin baditugu: Fergusonen di- glosia (1956) eta Berryren akulturazioa (1980).

Ferguson hizkuntzalariak zion bi hizkuntzek (edo gehiagok) elgarrekin iraun dezaketela, batek funtzio berezia betetzen duelarik, besteak bete- tzen ez duena; adibidez hizkuntza hau familia hizkuntza delarik bestea salerospeneko hizkuntza denean. Aldiz hizkuntza batek bestearen fun- tzioak betetzen dituelarik, lehena nagusitzen zaio bigarrenari eta hau ahul- duz doa. Duela 50 urte diglosia funtzionalean bizi ziren euskaldunak: onartzen zuten euskararen tokia etxea zela, bai eta auzoa, parrokia, mer- katua; aldiz, bazekiten eskola, jandarmeria eta postetxea erdalgunek zirela. Geroztik erdara eremu guztietan sartu da, eskolaren, administrazio- aren eta telebistaren bidez. Orduan hizkuntza borroka sortu zen herrian eta hitzunen kontzientzia: euskara zertarako?


Aterabide bakarra elebakartasuna zela zirudien. Lekuko W. Mackey eta bere hizkuntza hilkortasunaren teoria (1985). Hizkuntza batek herri hiz- kuntzaren lekua hartzen duelarik, gero eta hitzun gehiagok hizkuntza berria derabilate, gero eta funtzio gehiagoren betetzeko. Orduan, herri hizkuntza erredondante bilakatzen da eta, azkenean, ondarkin. Hizkun- tza honen salbatzeko, hitzunek, ekimen boluntaristaren bidez, jatorrizko hiz- kuntza erabiliko dute, ez bakarrik etxean, bai eta ere eskolan, kultur- gin-tzan eta komunikazio zabalean.

ELEBITASUNAREN ERRONKA

J. Berry Kanadako psikologoak hizkuntzen eta kulturen arteko harrema- nak bestela ikusten ditu, bereziki etorkinen eta hizkuntza elkarre txiki- en egoera aztertuz. Bi kultura elgarren kontaktoan direlarik «akulturazioa» gertatzen da, hots «aldaketa bat, bi kultura autonomoen eta bereizien ar- tean». Ohartu zen etorkin batzuegan akulturazioa patologikoa zela, bes- terengan lasaia zelarik. Osasun mentalari buruzko inkesta batzuk egin zituen, ikerketa hipotesizat hartuz «akulturazio estresa akulturatze mol- deari lotua da» (1980).

Berryren ikerketek balio dute psikolinguistikaren alorrean ere. Aztergai-tzat hartu zituen bi oinarritzko jarrera «jatorrizko kultura lantzea eta gi-zarte berriarekin harremanetan sartzea». Bi galde hauei bai ala ez eran-tzuna emanez, 0tik 10 arteko balorazioarekin, lau identifikazio jarrera ager-tzen dira, beheko grafiak agertzen duen bezela.

Identifikazio jarrerak



Hizkuntza elkarte batek jatorrizko nortasunari 0 balorea ematen diolarik eta nortasun berriari 10 balorea, laster asimilatuko da berezko nortasuna galduz. Alderantzizko jarrerak, nortasun berriari 0 puntu eta jatorrizkoari 10 puntu, separatismoa dakar. Kultura berria indartsuago bada etengabe-ko borrokaren iturburua da. Berryrentzat bi jarrera hauek etnozentrismoan oinarrituak dira. Askok azpimarratzen zituzten separatismoaren ondorio txarrak. Orain badakigu asimilazioa ez dela aterabide sana. Ikerlari ba-tek, Estatu Batuetan, Kanadan eta Frantzian egin diren 9 ikerketa konpa-ratu ditu eta ondorio hau atera du: «Asimilazioa hautazen duten kultura elkarteek, elebitasuna hautatzen dutenek baino osasun mental arazo gehiago dute». (Young 1996).

Aterabiderik okerrenera marjinalizazioa da, etorkinek jatorrizko nortasunari uko egiten diotelarik eta, denbora berean, kultura berritik baztertzen di-relarik. «Nortasun ezkorra» adierazten du, jadanik, algeriano ez den etor-kinak oraindik frantses izan gabe. Zenbat euskaldun zaharrek jasan zuten analfabetismoaren ahalgea euskaraz eta erdaraz? Gaur egun «euskaldun elebakar» gutxi da, %1. Asko gara «elebakar» horien seme-alabak eta haien frustrazioen lekukoak.

Berryren teorian aterabide zuzena kulturbitasuna da (jatorrizko nortasunari 10 puntu eta berriari 10 puntu). Bi kulturen jabe dena lasaiago bizi da gaurko kultur anizdun munduan. Jarrera honi «integrazioa» esaten zaio. Hitz hau ezin da erabili ez Frantzian ez Espainian, asimilazioarekin sino-nimo baita semantika mailan. Kulturbitasuna kontzeptu egokiagoa da,

«Elebakartasuna ezinezkoa da euskaldunentzat gutxiengoan garelakotz gure herrian berean. Bestalde elebitasuna arriskugarria da hizkuntza ahulagoarentzat, diglosiak hizkuntza indartsua indartzen baitu eta ahula ahultzen. Ondorioz lurraldetasunean finkatua den hizkuntza legeak beharrezko laguntzak dira»

«Gaur egun "euskararen unibertsoa" aldarrikatu da eta euskara berpizteko plan nagusiak antolatzen dira Hegoaldean eta Iparraldean. Proiektu handi horien eramateko indar nagusiak botere politikoa eta gizarte ekimenak dira»

kulturek elgar aberasten dutelarik nahasketarik gabe.

HIZKUNTZA, KULTURA, HERRIA

Soziolinguistika inkestak erakusten digu hizkuntza borrokak jarraitzen duela gure herrian eta euskararen garaipena ez dela segurtatua. Badakigu azkenean hiztunen kartsutasunak irabaziko duela. Halere, urraspidea ez da argi. Elebakartasuna ezinezkoa da euskaldunentzat gutxiengoan garelakotz gure herrian berean. Bestalde, elebitasuna arriskugarria da hizkuntza ahulagoarentzat, diglosiak hizkuntza indartsua indartzen baitu eta ahula ahultzen. Ondorioz, lurraldetasunean finkatua den hizkuntza legeak beharrezko laguntzak dira.

Baina ez da aski. Gure kultura bizkortu behar dugu alor orotan, kultur-gintza molde guztiak landuz, literatura, bertsolaritza, musika, dantza, gastronomia, arte ederrak, ibilaldiak. Hainbeste energia erretzen dugu euskara salbatzen non ez baitugu Euskal Herriaz gozatzeko denborarik. Herriak desiragarria izan behar du, lehenik herritarrentzat. Kulturak ematen dio herriari bere jatorrizko itxura atsegina. Galde nagusia ez da: «Euskara zertarako?», baina bai: «Zer dugu euskaraz esateko?».